



AKTEA/06

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2024-02-12)**

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2024-02-12 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:07
Amaiera-ordua:	08:15
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA URIARTE ANASAGASTI VICTOR ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000EC09B00F3Y7O1O3E2Y0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 12/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/02/2024 18:26:03

DOCUMENTO: 20240966811

Datea: 12/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-02-06 TGB (05)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 30.667.849-V NAN zenbakidun langileari diziiplina espedientea zabaltzea onartzea.
- 4.- Gaztaroa Sartu.Koop elkarte eta Bermeoko Udaleko "Sancti Spiritus" Zaharren Egoitzaren arteko hezkuntza lankidetzaz hitzarmena sinatzea onartzea.
- 5.- Epaitegiko 79/2024 dekretuaz berri ematea.
- 6.- 382/2023 epiaz berri ematea.
- 7.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 8.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-02-06 TGB (05)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko otsailaren 6ko 05/2024 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

Momentu honetan Endika Etxebarria eta Xabier Ortuzar sartu dira batzar gelara.

3.- 30.667.849-V NAN ZENBAKIDUN LANGILEARI DIZIPLINA ESPEDIENTEA



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000EC09B00F3Y7O1O3E2Y0

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 12/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/02/2024 18:26:03

DOCUMENTO: 20240966811
Data: 12/02/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



ZABALTZEA ONARTZEA.**Xedea**

30.667.849-V NAN zenbakidun langileari diziiplina espedientea zabaltzea.

Aurrekariak

Bakarra: 2024ko otsailaren 5ean Kirol Saileko zuzendariak, 30.667.849 -V NAN zenbakidun Kirol saileko langilearen jarrera desegokiari buruzko txostena aurkeztu du, honako hau eskatuz:

“ Adierazitakoak, Langileria teknikariaren eta Kirol Saileko zinegotziaren esku uzten dut dagokion tramitazioa eman eta beharrezkoak diren neurriak har ditzaten” .

Argudioak

Lehenengoa: 2023ko abenduaren 22an 30.667.849-V NAN zenbakidun langilearen jarrera desegokiaren berri eman da: (...)

Bigarrena: Kirol Saileko zuzendariak 2024ko otsailaren 5ean egindako txostenean esandakoarekin bat etorritik, 30.667.849-V NAN zenbakidun langileak lan hutsegiteagatik hainbat ohar zein espediente izan ditu:

2023ko martxoaren 12an izandako lan hutsegiteagatik espedientea zabaldu zitzaion eta 2023/3283 erabakian hiru eguneko zigorra ezarri zitzaion.

2023ko abuztuaren 27an izandako lan hutsegiteagatik espediente bat du irekita eta izapidetzen dago.

Hirugarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 93. artikulua honako hau xedatzen du:

“ 93. artikulua. Diziiplina-erantzukizuna.

1. Funtzionario publikoak eta langile lan-kontratudunak kapitulu honetan eta estatutu hau garatzeko Funtzio Publikoko legeek ematen dituzten arauetan ezarritako diziiplina-araubideari lotuta egongo dira.

Laugarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak aurreikusten dituen berme guztiak errespetatu behar dira, eta diziiplina-ahala erabili, 94 artikuluan arautzen diren legezketasunaren, tipikotasunaren, proportzionaltasunaren, atzeraeraginik ezaren eta errugabetasun-presuntzioaren printzipioen arabera:

<p>Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatzen ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E8000EC09B00F3Y70103E2Y0</p>	<p style="text-align: center;">Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/02/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 12/02/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/02/2024 18:26:03</p>	<p>DOCUMENTO: 20240966811</p> <p>Fecha: 12/02/2024</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
--	--	---



Bederatzigarrena: Egun horretan zeharo desitxuratuta agertu zen kiroldegian, gaupasa eginda zegoela ematen zuen, alkohol hatsarekin, lohi, bere goizeko lan jardunari aurre egiteko.

Bigarrena: Kirol Saileko zuzendariak 2024ko otsailaren 5ean egindako txostenean esandakoarekin bat etorriz, 30.667.849-V NAN zenbakidun langileak lan hutsegiteagatik hainbat ohar zein espediente izan ditu:

2023ko martxoaren 12an izandako lan hutsegiteagatik espedientea zabaldu zitzaion eta 2023/3283 erabakian hiru eguneko zigorra ezarri zitzaion.

2023ko abuztuaren 27an izandako lan hutsegiteagatik espediente bat du irekita eta izapidetzen dago.

Hirugarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 93. artikulua honako hau xedatzen du:

“ 93. artikulua. Diziplina-erantzukizuna.

1. Funtzionario publikoak eta langile lan-kontratudunak kapitulu honetan eta estatutu hau garatzeko Funtzio Publikoko legeek ematen dituzten arauetan ezarritako diziplina-araubideari lotuta egongo dira.

Laugarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak aurreikusten dituen berme guztiak errespetatu behar dira, eta diziplina-ahala erabili, 94 artikuluan arautzen diren legezketasunaren, tipikotasunaren, proportzionaltasunaren, atzeraeraginik ezaren eta errugabetasun-presuntzioaren printzipioen arabera:

“ Artículo 94. Ejercicio de la potestad disciplinaria.

1. Las Administraciones Públicas corregirán disciplinariamente las infracciones del personal a su servicio señalado en el artículo anterior cometidas en el ejercicio de sus funciones y cargos, sin perjuicio de la responsabilidad patrimonial o penal que pudiera derivarse de tales infracciones.”

Bosgarrena: Halaber, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XII Tituluaren I kapituluak Diziplina-araubidea xedatzen du, eta 174. artikuluan diziplina-araubidearen printzipioak ezartzen dira:

“ 174. artikulua.– Diziplina-araubidearen printzipioak.

Honako hauek dira diziplina-araubidearen printzipioak:



a) Falten nahiz zehapenen legezkotasun- eta tipikotasun-printzipioa:

1.– Lege honetan edo beste lege batzuetan faltatzen tipifikatutako egintzengatik edo ez-egiteengatik bakarrik zehatu ahal izango dira funtzionario publikoak.

2.– Garapeneko erregelamenduko xedapenak zehatu eta mailakatu ditzakete lege honetan ezarritako arau-hausteak eta zehapenak, haien izaera edo mugak aldatu gabe.

3.– Arau-hausteak eta zehapenak definitzen dituzten arauak ez dira analogiaz aplikatuko.

b) Atzeraeraginik ezaren printzipioa zehatzeko xedapenak ustezko arau-hauslearen kalterako badira, eta atzeraeragineko printzipioa haren mesederako badira.

c) Proporzionaltasun-printzipioa, zeina arau-hausteak eta zehapenak sailkatzerakoan nahiz aplikatzerakoan erabiliko baita.

d) Erruduntasun-printzipioa.

e) Errugabetasun-presuntzioaren printzipioa eta defentsarako frogabide egokiak erabiltzeko eskubidea.

f) Non bis in idem printzipioa, subjektu-, gertakari- eta oinarri-berdintasuna dagoenean.”

Jakinarazitako jarrera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 177. artikuluan aurreikusitako hutsegitea izan daiteke:

“ 177. artikulua.– Arau-hausteen tipifikazioa.

1.– Kapitulu honetan, beste lege batzuetan edo, hala dagokionean, garapen-erregelamenduetan tipifikatutako edozein eginbehar edo betebehar ez betetzea dakarten egintzak edo ez-egiteak dira diziplina-faltak.

2.– Hona hemen diziplina-falten sailkapena:

a) Oso astunak.

b) Astunak.

c) Arinak

30.667.849-V NAN zenbakidun langilearen jarrera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legean ezarritako falta izan daiteke, 180.i) eta j) artikuluetan adierazitakoak, hain zuzen ere:

“ 180. artikulua.– Falta arinak.

Falta arinak dira:



- a) Begirune, arretoa edo errespeturik gabe jokatzeko herritar, nagusi, lankide edo mendekoekiko harremanetan, betiere falta astuntzat jotzen ez bada.
- b) Herritarrei behar duten informazioa ez ematea, informazio hori langileek funtzioak gauzatzen dituzten unitatearen eskumenekoa bada.
- c) Kalteak eragitea Administrazio publikoaren ondasun eta dokumentuei eta behar besteko ardurarik gabe jardutea haien kontserbazioan, betiere jokabide horiek falta astuntzat jotzen ez badira.
- d) Behar ez bezala erabiltzea beren funtzioak bete ahal izateko Administrazio publikoak eskura jarritako baliabide telematikoak, betiere jokabide hori falta astuntzat jotzen ez bada.
- e) Lanaldiaren barruan, eta bidezko arrazoirik izan gabe, lanpostuan ez egotea, betiere falta astuntzat jotzen ez bada.
- f) Ez betetzea Administrazio publikoak bidaltzen dizkien inkestak, lanpostuei eta funtzioei buruzkoak, Administrazioaren egiturak arrazionalizatzeko xedez egiten direnak.
- g) Lan-ordutegia ez betetzea, bidezko arrazoirik gabe, betiere falta astuntzat jotzen ez bada.
- h) Egun batean lanera ez joatea bidezko arrazoirik gabe.
- i) Norberaren funtzioak eta zereginak betetzerakoan, zabarkeriaz edo ardurarik gabe jokatzeko, betiere falta astuntzat jotzen ez bada
- j) Ez betetzea enplegatu publikoen eginbehar eta betebeharrak edo etika- eta jokabide-printzipioak, betiere falta astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez bada.”

Seigarrena: Falta kalifikatzeko, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 181. artikuluan ezarritako irizpideak hartu behar dira kontuan:

“ 181. artikulua.– Faltak kalifikatzeko irizpideak.

1.– Falta modura kalifikatu daitezkeen egintzak tipifikatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Zer gradutan urratu den legeria.
- b) Interes publikoan edo herritarren edo Administrazioaren ondarean zein ondasunetan eragindako kalteen larritasuna.
- c) Administrazioaren irudi publikoaren izen onaren galera.

2.– Euskal administrazio publikoek erregelamenduz ezarri ahal izango dute nola antolatu irizpide horien aplikazio praktikoa.”



Beraz, hutsegitea tipifikatzerakoan oso garrantzitsua da goian aipatutako artikulua zehazten dituen irizpenak kontuan hartzea, horren arabera hutsegitea neurtu ez ezik zigorraren maila ere jartzen baita, eta 184. artikuluan zehapenak mailakatzeko irizpideak finkatzen dira.

Kasu honetan, argi geratu da 30.667.849-V NAN zenbakidun langilearen jarrerak herritarrengan eragin duen kaltea; kirol zuzendariak bere txostenean adierazi duenez, kiroldegira erabat desitxuratuta iritsi zen “egun horretan oso desitxuratuta agertu zen kiroldegian, gaupasa eginda zegoela ematen zuen, alkohol hatsarekin, lohi, bere goizeko lan jardunari aurre egiteko”. Eta, gainera, Kirol zuzendariak adierazi duen moduan langileak ezin dezake kiroldegiaren erabilera pribatu bat egin.

Zazpigarrena: Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen III. kapituluaren diziplina-zehapenak arautzen dira, eta konkretuki, 183.3 artikuluan arau-hauste arinengatik jarri daitezkeen zehapenak ezartzen dira:

“3.– Zehapen hauek ezar daitezke falta arinengatik:

- a) Funtzio- eta ordainsari-gabetzea, edo, langile lan-kontratudunen kasuan, enplegu- eta soldata-gabetzea, egun batetik hogeita hamar egun artekoa.
- b) Ohartarazpena, Administrazioaren irudi publikoan izandako eraginaren araberakoa.
- c) Etika publikoari buruzko prestakuntza-programak edo -ikastaroak egin behar izatea, baita egindako arau-haustearen izaerarekin zerikusia dutenak ere.”

Zortzigarrena: Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 23ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikuluan ezarritakoaren arabera, alkateari dagokio hutsegiteak zehatzea.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 30.667.849-V NAN zenbakidun langileak izandako jarrera desegokiagatik, eta kiroldegiaren erabilera pribatu bat egiteagatik, abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 173. eta 177. artikulua eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 95.artikulua ezarritakoaren arabera, 30.667.849-V NAN zenbakidun langileari



diziplina-espeditentea hastea, ustezko diziplina-erantzukizuna ebazteko, arestian azaldutako gertakariengatik.

BIGARRENA: Espedientearen instruktore udal honetako funtzionarioa den Karmele Muñoa Arrigain andrea izendatzea.

HIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, eta jakinarazi ezespene eskubidea baliatu ahal izango duela instruktorea izendatzeari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

LAUGARRENA: Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 185.7 artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki hau langileen ordezkariari jakinaraztea.

4.- GAZTAROA SARTU.KOOP ELKARTEA ETA BERMEOKO UDALEKO “SANCTI SPIRITUS” ZAHARREN EGOITZAREN ARTEKO HEZKUNTZA LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

LANBIDEren bitartez GAZTAROA SARTU KOOP. elkarteak eta Bermeoko Udaleko Sancti Spiritus zaharren egoitzaren arteko hezkuntza lankidetzaren hitzarmena.

Aurrekariak

Lehenengoa: Lankidetzaren hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

Bigarrena: GAZTAROA SARTU.KOOP elkarteak “Pertsonen etxean arreta soziosantarioa” emateko ikastaroko praktikak egiteko Bermeoko Udaleko Sancti Spiritus zaharren egoitzako etxez etxeko zerbitzuan praktikak egiteko eskaria aurkeztu du.

Hirugarrena: Lanbidek ziurtatutako ikasketa ofizialak dira. 120 orduko etxez etxeko zerbitzuan egingo diren praktikak eta 2024ko otsailaren 19tik martxoaren 22ra egingo dira.



Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen du bere 5. artikuluan:

“Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.

Bigarrena: Eskumenen ganean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, honakoa dino: “1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (...) 20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea”.

Hirugarrena: Aitatutako justifikatze memoriaren arabera, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira, baina kontuan izan behar da, hainbat klausula, oharren atalean jasota dauzela, beste klausula guztiekaz batera jasota egon beharrean.

Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2023ko ekainaren 29ko 3.096. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: GAZTAROA SARTU.KOOP elkarteak eta Bermeoko Udaleko Sancti Spiritus zaharren egoitzaren arteko hezkuntza lankidetzaz hitzarmena onartzea.

BIGARRENA: GAZTAROA SARTU.KOOP elkarteko ikaslearen praktika eskaria onartzea.

HIRUGARRENA: Interesdunari erabakia jakinaraztea.



Sinadurea eta data



5.- EPAITEGIKO 79/2024 DEKRETUAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 79/2024 dekretuaren berri eman zaio, eta honela dio:

“Se tiene por desistida de su demanda a la parte demandante y se declara finalizado el presente proceso.

Una vez firme esta resolución archívense las actuaciones.”

6.- 382/2023 EPAIAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 382/2023 dekretuaren berri eman zaio, eta honela dio:

“FALLO: Desestimar el Recurso de Apelación formulado por la representación procesal de Doña Asunción Uriarte Anasagasti contra sentencia del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº 5 de Bilbao, de 11 de noviembre de 2022, en R.C.A Nº 109/2020 relativo al acuerdo plenario del Ayuntamiento de Bermeo-Bermeoko Udala, de 31 de enero de 2020, sobre inventario de caminos municipales, y confirmar dicha sentencia, con imposición de costas a la recurrente en los términos del F.J. quinto.”

7.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

8.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000EC09B00F3Y701O3E2Y0

Sinadurea eta data


JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 12/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/02/2024 18:26:03

DOCUMENTO: 20240966811
Data: 12/02/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orri oinean sinatzaileak eta datak

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E8000EC09B00F3Y701O3E2Y0</p>	<p style="text-align: center;">Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/02/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 12/02/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/02/2024 18:26:03</p>	<p>DOCUMENTO: 20240966811</p> <p>Datea: 12/02/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidaidea: Erregistro nagusia</p>
--	--	--	---

